

FAMILIA BITARTEKARITZAREN ONURAK

Familia bitartekaritza, familian gertatzen diren krisiei aurre egiteko modu berria da, kostu emozional gutxi du eta auziaren eragin negatiboak arintzen ditu. Helburua akordio batera heltzea eta prozesu judizial batean inplikaturik dauden pertsonengan sortzen diren ondorio emozionalak saihestea izaten da.

Bikote hausturen kasuetan, pertsonen beraien bizitzan eragina duten erabakiak hartzen laguntzen zaizkie (antolaketa ekonomikoa, zaintza, ondasunen likidazioa, etab.). Horrez gain, errespetuzko eta konfidentzialtasunezko espazio bat eskaintzen zaie banantzeak eragin ditzakeen arazoak ebazteko.

Behin prozesua martxan dela, Bitartekaritza Hitzarmena prestatzen da, hitzartutako akordioak zehazten dira eta epaitegian aurkezten dira epaiketa judizial bat izateko. Familia bitartekaritza ere erabilgarria izaten da, bikoteak behin bananduta dauden kasuetan eta banandutako momentuan hartu zituzten erabakiak aldatu nahi dituzten kasuetan.

Bizikidetzan eta komunikazioan bikotean zailtasunak sortzen direnean, Familia bitartekaritza prozesu erabilgarria izaten da bikotearentzat. Ohikoa izaten da bizitzako gertaera batzuk bikoteko kide bakoitzak modu oso desberdinean bizitzea eta ulertzea, horrek distantzia eta mina sortzen duelarik. Familia harremanetan bakoitzak hartu duen rola ere tentsio eta ondorezaren iturri izan daiteke.

Nerabe eta helduen arteko bizikidetzaren arazoak kasuan, Familia bitartekaritzak, nerabe eta helduak elkar entzuteko gune bat eskaintzen du, non bizikidetzaren arazoez hitz egiten den eta behar eta interes bateratuak azaltzen diren. Helburua, elkar ulertzea eta alde biek errespetatuko dituzten erabakiak eta konponbideak lortzea da. Negoziazio gune ere izaten da, non, hainbat eta hainbat kontutan akordioak lortzera heltzen den: irteeren ordutegia, etxera heltzeko ordua, ordenagailuaren erabilera, telefonoa, Internet, dirua, ... etab.

Gainera, Familia bitartekaritzan, familia zabalarekin ematen diren gatazka ere lantzen dira (persona nagusien zaintza edo menpeko pertsona, gatazka, familiako ondasunen banaketa ezberdindua, etab.). Bizikidetzak sarridan tentsio eta liskarrak sortzen ditu, harremanak hondatzen ditu eta familia giroa zailtzen du. Bitartekaritzak, familiako kideak beraien artean adierazteko, inplikatzeko, desberdintasunak konpontzeko eta akordiotara heltzeko gune bat eskaintzen du.

LABURPENA

Bitartekaritza prozesuan, gatazken ebazpenean formazioa duten profesional independente eta inpartzialek hartzen dute parte. Profesionalek modu boluntarioan hartzen dute parte eta bi aldeei laguntzen saiatzen dira, denon interesak kontuan hartuta, interes bateratuak, akordio egokiak eta iraunkorrak eta hitzartutako konponbideak aurkitzen laguntzen dute. Helburua bikotearen komunikatzeko gaitasuna berreskuratzea eta gutxiengo akordio batzuetara heltzeko bidea eraikitzea izaten da.

ETXADI

Familia-psikologia Unibertsitate-zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia